



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko otsailaren 4a

13. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A :

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, berrikuntzaren arloko (I+G+B) Nafarroako Gobernuaren politika orokorrari buruzkoa, Juan Carlos Longás García jaunak egina (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da manten dezan Nafarroako Mahastizaintza eta Enologi Zentroa (Evena), sektorearen eta Nafarroa Jatorrizko Deituraren garapenaren zerbitzuan dagoen entitate publiko gisa. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erraztasunak eman ditzan “Traperos de Emaús” Fundazioak hondakinak berrerabilerarako prestatzeko proiektua abian jar dezan Berriozarren, eta, horretarako, aurreikusitako inbertsioen finantzaketa erraztu dezan. Unión del Pueblo Navarro, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Nafarroa-Bai, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu dute (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa-protokolo bat presta dezan Asiako liztorearen (*Vespa velutina nigritorax*) inbasioa dela-eta. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da handitu dezan enplegurako, hezkuntzarako, prestakuntzarako, mugikortasunerako, gazteriarako eta gizarteratzerako finantzaketa. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da kohesio-politikak, landa garapenerako funtsek eta itsaso- eta arrantza politikek lagun dezaten 2020 Estrategiaren helburuak lortzen. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da ziarra dezan Nekazaritzako Politika Komunik egungo diru-esleipena izaten jarraitzea. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontseilu Ekonomiko eta Soziala ken dezan. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarrera positibo eta proaktiboagoa izan dezan euskara hedabideetan sustatzeari dagokionez. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Paxi Leuza García jaunak aurkeztu dute (15. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ibilbide-orri bat presta dezan udal musika eskolen sektorea antolatu eta egonkortzeko. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkeztu dute (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da liburu digitalak eskuratzeko proiektu pilotu bat ezar dezan. Mozioa erretiratzea (17. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak egungo foru araubide mugatuaren kudeaketari buruzko zenbait neurri hartzeko borondatea adierazten du. Foru Araubideko Batzordeak onetsia (18. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baitu Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzak duen jarrera langile publikoei dagokien paga ordaindu dieten Nafarroako udalekin. Eledunen Batzarrak onetsia (19. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere kezka agertzen baitu, Kongoko Errepublika Demokratikoaren Ekialdeko indarkeria endemikoko egoera dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (19. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu bere bokazioa eta nahia dela ahalik eta nafar gehienek euskara ikastea. Eledunen Batzarrak onetsia (20. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, “Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatik sindikatuari, gizarte ekonomiko elkarteei eta enpresaburuen elkarteei egin beharreko ordainketa” izeneko kontusailaren erabilerari eta xedeari buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egin (21. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen Comptos Ganberak Nafarroako Enplegu Zerbitzuari buruzko txostenean eginiko gomendioak garatu eta aplikatzeko, Ana Beltrán Villalba andreak egin (22. or.).
- Galdera, Osasunerako zentimoaren gainean behin betiko erabaki bat hartzeko arrazoiei buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (22. or.).
- Galdera, jakiteko aldatetarik egingen ote den banku-entitateekin eginiko hitzarmenetan, funtsak handitzea ahalbidetzeko, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (23. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak lehendakaria ados ote dagoen Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilari Morrás jaunak eginiko adierazpenekin, Legebiltzarraren urtarrilaren 24ko Osoko Bilkuran Lizarbe jaunari emandako erantzunean, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (24. or.).
- Galdera, Foru Administrazioiko goi kargudunei antzinasun sari gisa ordaindutako kopuruari buruzkoa, Eloy Villanueva Cruz jaunak egin (25. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan aurreikusitako Lankidetzak Batzordeak eginiko bilere buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (25. or.).
- Galdera, Estatuaren eta Nafarroaren arteko Transferentzien Batzordeari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (26. or.).
- Galdera, Gobernuak egin dituen gestioei buruzkoa, Parlamentuak eginiko eskari bat betetze aldera. Horren bidez, eskatzen zen tresna informatiko bat finantzatu eta garatzeko, kontabilitate- nahiz aurrekontu-kontrolarekin uztarturik egon beharko litzatekeena, toki korporazioei beren udal inbentarioak egitea ahalbidetzeko, Koldo Amezketa Díaz jaunak egin (27. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, berrikuntzaren arloko (I+G+B) Nafarroako Gobernuaren politika orokorrari buruzkoa.

JUAN CARLOS LONGÁS GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Carlos Longás García jaunak aurkezturiko jabeldura, berrikuntzaren arloko (I+G+B) Nafarroako Gobernuaren politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan Carlos Longás García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura egiten dio Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilari Lourdes Goicoechea andeari.

Nafarroako Gobernuak berrikuntzaren arloan (I+G+B) daraman politika orokorrari buruzko jabeldura.

Aspaldi honetan, topiko bat bihurtu da azpimarratzea zeinen garrantzitsuak diren, garapen ekonomiko eta sozialari begira, berrikuntza eta garapen teknologikoa, eskuarki I+G+B bezala ezagutzen dena. Politikaren eta enpresen esparru-

an edo esparru akademikoan nekez aurkituko ditugu horren aurkako adierazpenak. Krisiaren hasieran, sarritan azpimarratzen zen hezkuntza nahiz teknologia arloan ahalegina areagotu beharra zegoela, erremediorik eraginkorrenetako bat bezala. Ez da halakorik gertatu. Hezkuntza-sistemaren –bereziki, publikoaren– nariadurari gehitzen zaio Gobernuak itxuraz ez duela ia gogorik I+G+Bri dagokionez. III. Plan Teknologikoa 2011n bukatu zen, eta IV. Plana iragarri den arren eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilariak Parlamentuko kasuko batzordean horren ildo nagusiak azaldu dituen arren, geldialdia eta zehaztasunik gabeko esaldi orokorrak besterik ez dugu ikusten guk hor. Eta, bitartean, pilatu egiten ari dira Nafarroako gizarteak gaur egungo krisi agertokian nahiz ustez etorkizunean etorriko direnetan aurre egin beharreko erronkak.

Gogora bedi jarduera berritzailea ez dela industriaren auzia soilik, ezpada sare ekonomiko eta sozial osoan eragiten duena. I+G+Bn egindako ahaleginaren norainokoa eta hedapena lagun egiteko politiken baitan daude. Ahalmen berritzailea xurgatze teknologikoaren ahalmenari –produktio sarearena berarena ez ezik, gizarte osoarena ere– oso loturik dagoen bezala.

Egoera zein den ikusita eta auziaren norainokoa eta garrantzia ikusita, ezinbestekoa jakitea zein diren arlo honetan Gobernuaren jarduketak eta proiektuak.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Juan Carlos Longás García

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mantenduzan Nafarroako Mahastizaintza eta Enologi Zentroa (Evena), sektorearen eta Nafarroa Jatorrizko Deituraren garapenaren zerbitzuan dagoen entitate publiko gisa.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita mantenduzan Nafarroako Mahastizaintza eta Enologi Zentroa (Evena), sektorearen eta Nafarroa Jatorrizko Deituraren garapenaren zerbitzuan dagoen entitate publiko gisa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko, hedabideak bertan direla.

Evenaren sorrera, 1980an, mugarria izan zen Nafarroako ardoentzat eta Erriberriko herriarentzat, zeinak tradizio handia baitu mahastigintzan eta ardogintzan, ez baita ahanzi behar bertan dagoela lehen upategi kooperatiboa, bai eta sektorearekin lotutako entitate garrantzitsuak ere; esaterako, Nafarroa Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arau-emailea.

Evena prestigioko zentro ekologiko bihurtu da nazio-mailan.

Sektorearentzako une zail honetan inoiz baino gehiago behar eta balioesten da zentro bereki bat edukitzea, ikerkuntza, garapena eta nazioarteko merkatuen ezagutza sustatuko dituen.

Sektore guztiek adierazi dute –bai nekazaritzako sindikatuek ordezkatutako ekoizleek, bai UCAN eta ABN merkaturatzaileek– Evena desegitearen aurka daudela eta kezkatuta daudela jatorrizko deituraren irudiak pairatuko duen kaltea dela eta.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Mahastizaintza eta Enologia Zentroa-Evena mantenduzan, Nafarroa Jatorrizko Deituraren garapenaren eta sektorearen zerbitzuko entitate publiko gisa, ardoaren sektorearen irudia mantentze aldera nazioan nahiz nazioartean, ekoizle eta upategientzat lehiakortasun-tresna bezala nortasuna galtzeko arriskurik gabe.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 18an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erraztasunak eman ditzan “Traperos de Emaús” Fundazioak hondakinak berrerabilerarako prestatzeko proiektua abian jar dezan Berriozarren, eta, horretarako, aurreikusitako inbertsioen finantzaketa erraztu dezan.

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO, SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, NAFARROA-BAI, NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA ATXIKI GABEKO FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Nafarroa-Bai, Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita erraztasunak eman ditzan “Traperos de Emaús” Fundazioak hondakinak berrerabilerarako prestatzeko proiektua abian jar dezan Berriozarren, eta, horretarako, aurreikusitako inbertsioen finantzaketa erraztu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu erraztasunak eman ditzan “Traperos de Emaús” Fundazioak hondakinak berrerabilerarako prestatzeko proiektua abian jar dezan Berriozarren, eta, horretarako, aurreikusitako inbertsioen finantzaketa erraztu dezan.

Orain dela gutxi, “Traperos de Emaús” Fundazioak bere berrogei urteetan zehar egindako lana-

ren laburpen bat eta etorkizunari begirako aurreikuspenak aurkeztu ditu Nafarroako Parlamentuko Industria Batzordean.

Aurreikuspen horien artean aipagarria da Berriozarren egiten ari diren inbertsioa; izan ere, lurak eta nabe batzuk erosi dituzte, eta bildutako hondakinak prestatu nahi dituzte horietan, gero berrerabiltzeko.

Arlo sozialean nahiz ingurumenarenean egiten duten lanaren garrantziaz ohartuta, eta Legebiltzar honetako talde guztiak ados daudenez Administrazioak fundazio horri laguntzen jarraitzeko premiari dagokionez, uste dugu beharrezkoa dela Parlamentuak Gobernua premia dezan, Gobernuaren jarduna sustatzeko eginkizuna duenez, babesa ematera inbertsio horri, “Foru Komunitatearen interesekoa” deklaratzuz eta han egiten diren inbertsioen portzentaje bat bere gain hartuz.

Hori dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten diogu Legebiltzarreko Osoko Bilkurari:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du “Foru Komunitatearen interesekoa” deklaratu dezan “Traperos de Emaús” Fundazioa hondakinak berrerabilerarako prestatze aldera Berriozarren sustatzen ari den proiektua, eta han egiten diren inbertsioen portzentaje bat finantza dezan, kontuan hartuta inbertsio horrek gizarte, ingurumen nahiz ekonomiaren arloetan egiten duen mesede garrantzitsua, lanpostu kopuru handi bat sortzea aurreikusten baita.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentariak: Carlos García Adanero, Samuel Caro Sádaba, Bikendi Barea Aiestaran, Patxi Zabaleta Zabaleta, Ana Beltrán Villalba, Marisa de Simón Caballero eta Manu Ayerdi Olaizola

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa-protokolo bat presta dezan Asiako liztorraren (*Vespa velutina nigritorax*) inbasioa dela-eta.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jarduketa-protokolo bat presta dezan Asiako liztorraren (*Vespa velutina nigritorax*) inbasioa dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta

Toki Administrazioako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Kezkagarria da Nafarroako iparraldean Asiako liztorrak –*vespa velutina nigritorax*– duen presentzia, zeina erlezainak eta nekazariak duela zenbait urtetik hona salatzen ari baitira eta eremu horretako udal ordezkarien kezka orokortua eragiten ari baita. Hartara, eta ikusita Asiako liztorrak azken urte honetan izan duen hazkunde esponenziala, zeinaren aurrean, frogatu denez, ez diren nahikoak departamentu honek abian jarritako neurriak, talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarduketa protokolo bat taxutu dezan, Asiako liztorraren –*Vespa velutina nigritorax*– inbasioak dakarren krisi ekologiko larriari aurre egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren baliabide tekniko eta ekonomiko guztiak egokitu ditzan protokolo hori taxutzean, habiak desegite aldera, behin liztorraren presentziaren berri izanda.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuia premiatzen da handitu dezan enplegurako, hezkuntzarako, prestakuntzarako, mugikortasunerako, gazteriarako eta gizarteratzerako finantzaketa.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuia premiatzen baita handitu dezan enplegurako, hezkuntzarako, prestakuntzarako, mugikortasunerako, gazteriarako eta gizarteratzerako finantzaketa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkezten du, dagokion batzordean eztabaidatu eta bozka dadin. "2014-2020 urteetako Perspektiba Finantzarioak (PPFF) (Urte Anitzeko Finantza-esparrua)" direla eta Europar Batasunean izaten ari den negoziarioari buruzkoa da; eta bereziki, Enpleguaren, I+G+Baren, enpresa txiki eta ertainen, Europa 2020ren eta klima aldaketaren inguruko politikei buruzkoa.

Europar Batasuna eztabaidatzen ari da etorkizunean, 2014-2020 urteetan, izanen duen aurrekontuari buruz –Perspektiba Finantzarioak (PPFF) izenekoak–, tamaina eta egiturari dagokienez (2014-2020 urteetako Urte Anitzeko Finantza-esparrua), lan modalitatei buruz (Erakundeen arteko Akordioa) eta bere finantziarioari buruz (baliabide propioak). Eztabaida hori guztiz garrantzitsua da Europaren eta bertako herritarren proiektuaren etorkizunerako.

Eztabaida hori ezin da askatu Europar Batasunak, honakoak lortzeko, oro har, behar duen politika ekonomiko egokiari buruzko eztabaidatik: krisialditik eta austeritatearen fundamentalismo

faltsutik ateratzea eta berriz hazi, enplegua sortu eta Europa 2020 Estrategiaren helburuak lortzea.

Sozialisten parlamentu-taldeak kezka sakona dauka, agerikoa baita krisialdi ekonomikoa gure gizartearen oinarritzko egiturak suntsitzen ari dela. Kezka hori hamaika aldiz adierazi dugu, bai gure herrialdean, PSOEn sozialista espainiarrok ordezkariak daukagun maila guztietan –toki administrazioan eta administrazio autonomiko eta nazionalan–, bai European, Europako Parlamentuko Socialistas & Demócratas (S&D) parlamentu-taldearen bitartez.

Sozialistok ez dugu sinesten Espainiako eta Europako eskuinak inposatu nahi digun pentsamendu bakarrean, egungo krisi ekonomiko eta finantzariorik ateratzeko bide bakarra austeritate ekonomikoa dela dioen pentsamendu bakarrean.

Europa mailan, Batasun guztia hartuta, inbertsioa behera egiten ari da 1992tik, eta joera hori larriago bihurtu da krisialdia hasi zenetik (2009an BPGaren % 2,8 eta % 2,3 2011n). Joera horri buelta eman behar zaio, EBren ekonomia bere lehengo ibilbidera eramateko eta behin betiko apustu egiteko kalitatezko enplegu egonkorra bermatzeko gai diren sektoreetan oinarritutako hazkunde ekonomikoren alde. Europako ongizatearen eredua, Europako Gizarte Eredua, eta oparotasuneko eta justizia sozialeko etorkizuna berma dezakeen bidea da hori.

Ikuspegi horretatik, EBren aurrekontua politika antiziklikoa egiteko tresna garrantzitsua

izan daiteke, eta izan behar du. Une honetan Europar Batasunaren aurrekontua murrizteak gastu publikoaren gutxitze larria ekarriko luke estatu kide askotan, eta krisia sakonagoa egiten eta haren gainditzea atzeratzen lagunduko luke.

PSOEn sinesten dugu EBren aurrekontuak ahalegin nazionalak koordinatzeko eta hobetzeko tresna bat izan behar duela, zeinak balioko baitu Europatik bideratzeko etorkizunera orientatuta dauden inbertsioak, giza kapitalean eta hezkuntzan eginikoak, jakintzan oinarritutako gizarte baten alde, azpiegituren alde, ikerketaren alde, berrikuntzaren alde, enpresa txiki eta ertainen alde eta teknologia berri berdeen alde. Estatu kideek beren kabuz ezin dituzte helburu horiek erdietsi, krisialdi sakoneko azken urte hauetan

egiazatu dugun bezala eta, era berean, adibidez, 2000-2010 urteetako Lisboako Estrategia deitutakoak hazkunde ekonomiko argiko etapa batean izan zuen porrotean egiaztatu zen bezala.

Europak ezin du berriz porrot egin helburu horretan, zeren eta horrek behin betiko utziko bailuke Batasuna lidergo globaletik kanpo, bera izan baita gizarterik garatuena, gizarte-ongizate eta kohesiorik handiena zuena eta kalitate handiko enplegua sortzeko gai zena.

Hori dela eta, ez Europar Batasunak bere orokorrean, ez, are gutxiago, Espainiak, ezin dezakete galdu EBk 2014-2020 urteetarako izanen duen aurrekontuari buruzko eztabaida, hain zuzen ere lortu behar delako Perspektiba Finantzario berri hauek lagungarri gerta daitezela Europako gobernantza ekonomikoa indartzeko eta UE-2020 estrategia gauzatzeko, hazkunde adimentsu, jasangarri eta integratzailea lortze aldera.

Europar Batasunaren Perspektiba Finantzarioak berrikusteko, baliabide berekien sistema erreformatzeko eta kohesio politikak eta nekazaritza politika komunak erreformatzeko prozesuaren esparruan –eta orain, sekula baino gehiago, 2012ko azaroaren 22an eta 23an gai hori modu monografikoan eztabaidatu zuen Europako Kontseilu bereziaren porrotaren eta akordio faltaren ondoren–, sinetsita gaude Espainiako Gobernuak jarraitu beharko dituela ondoren zehaztuko ditugun helburuak, kasuko negoziazio-estrategia definitu eta burutzeko eta 2013an akordio bat lortzeko; betiere, ez edozein preziotan lortutako akordio bat, zeren eta onartezina bailitzateke datorren aldiko hazkunde-estrategien garapena eragozten duen baliabideen gutxitze oro. Sozialisten parlamentutaldea uste du beharrezkoa dela, gobernuaren negoziatio-jarrera indartzeko, parlamentu-talde guztiek joan den legegintzaldiaren amaieran erdietsitako konpromisoa berritzea, haren edukia gaurkotuta, hain zuzen ere gure herrialdearen eta Europar Batasunaren beraren interesak behar bezala defenda daitezzen 2014-2020 urteetarako Urte Anitzeko Finantza-esparru berria onesteko amaierako fasean.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du:

1. Enplegu, hezkuntza, prestakuntza, mugikortasun, gazteria eta gizarteratzerako finantzaketa handi dezan, 2007-2013 aldiarekin konparatuta. Europako gazteen gizarteratzea lehentasunez sartu behar da EBren aurrekontuaren kargura finantzatutako politika guztietan.

2. Europa 2020 Estrategiaren esparruan baliabide-bolumen handiagoa esleitzen den epe luzeko hezkuntzarako eta prestakuntzarako, bereziki gazteen langabeziaren eta iraupen luzekoaren aurka borrokatzeko. Europar Batzordeak gazteriarekin lotutako tresnak proposatu ditu; esaterako, Gazteentzako Bermea. Gazteentzako Bermeak Europako programa bat izan behar du, kalitatezkoa, gutxieneko gizarte-eskubide batzuekikoa, kofinantzatua eta prestakuntza nahiz gizarteratzea uztartuko dituen, estatu kideek ere sustatua. Hortaz, Espainiako Gobernuak premiatzen da babes eman diezaien eta gure herrian ere abian jar dezaten.

3. Europako Gizarte Funtzari kohesio-politika-aren finantzaketa osoaren % 25 esleitzen diezaien, enplegarritasuna eta inbertsio soziala sustatzeko. Europako Gizarte Funtzaren % 20 gorde beharko litzateke gizarteratzea eta pobrezia-aren aurkako borroka sustatzeko.

4. Ziurta dezan Europako Globalizazio Funtza indarrean mantentzen dela eta gaurkotu egiten dela, langile-kategoria guztiei lan-merkatuan berriro sartzen laguntzeko eta trebetasun berriak lortzen laguntzeko tresna gisa.

5. Konponbide egoki bat aurki dezan, egoera ahuleko pertsonen laguntzeko programa mantentze aldera.

6. Ikerkuntzaren eta berrikuntzaren, enpresa txiki eta ertainen eta lehiakortasunaren aldeko finantzaketa handi dezan, 2007-2013 urte anitzeko finantza-esparruarekin konparatuta. Europar Batasunean berrikuntzara eta ikerkuntzara bideratutako politikak finantzatzeko ahalegina perspektiba finantzario berrietan mantentzea funtsezkoa da 2020 Estrategiak arrakasta izan dezan. Hartara, etorkizuneko VIII. Programa Esparruan eta, bereziki, Lehiakortasun eta Berrikuntza Programan enpresa txiki eta ertainentzako lerroak bultzatu beharra dago batez ere.

7. Perspektiba Finantzarioen barruan tresna berezi bat ezar dezan enpresa txiki eta ertainetarako, haien lehiakortasuna sustatzeko eta Europar Batasunak enpresa txikien alde duen estrategia babesteko.

8. Defenda dezan Europar Batasunaren aurrekontuaren barruan elementu batzuk ezarri behar direla, kontuan hartzeko estatuak "arrakala teknologikoa" deitutakoa ixteko egin duten ahalegina.

9. "Connecting Europe" Tresnaren proposamena babestu dezan, garraioaren, energiaren eta telekomunikazioen arloetan identifikatutako azpiegituren lehentasunezko proiektuak gauzatzeko finantziario handiagoa ziurtatze aldera. Kohesio

Funtsetik "Connecting Europe" Tresnara egiteko proposatu den transferentzia soilik eginen da Kohesio Funtsetik dirua hartzen duten herrialdeen kasuan eta haien garraio-azpiegituren alde, estatu kide horien ahalmen administratiboa hobetzearen ildotik.

10. EBren aurrekontuaren osotasunean, ingurumenaren, klima aldaketaren eta biodibertsitatearen arloko funtsezko neurriak direla-eta Batzordeak egiten duen proposamena babes dezan, karbono gutxi erabiltzen duen ekonomia jasagarri

batzen aldeko inbertsioak mobilizatzeko. Babes egokia eman beharra dago Europa 2020ko helburuak eta Europar Batasunak klima, energia, baliabideen efizientzia eta biodibertsitatea direla-eta dauzkan helburuak erdiesteko. Halaber, muturreko babes-neurriak ezarri beharko dira, ingurumenaren ikuspuntutik kaltegarriak eta inkoherenteak diren inbertsioak saihesteko.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 22an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da kohesio-politikak, landa garapenerako funtsek eta itsaso- eta arrantza politikek lagun dezaten 2020 Estrategiaren helburuak lortzen.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita kohesio-politikak, landa garapenerako funtsek eta itsaso- eta arrantza politikek lagun dezaten 2020 Estrategiaren helburuak lortzen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztzen du, dagokion batzordean eztabaidatu eta bozka dadin. "2014-2020 urteetako Perspektiba Finantzarioak (PPFF) (Urte Anitzeko Finantza-esparrua)" direla-eta Europar Batasunean izaten ari den negoziarioari buruzkoa da; eta bereziki, kohesio politikei buruzkoa.

Europar Batasuna eztabaidatzen ari da etorkizunean, 2014-2020 urteetan, izanen duen aurrekontuari buruz –Perspektiba Finantzarioak (PPFF) izenekoak–, tamaina eta egiturari dagokienez (2014-2020 urteetako Urte Anitzeko Finantza-esparrua), lan modalitateei buruz (Erakundeen arteko Akordioa) eta bere finantziarioari buruz (baliabide propioak). Eztabaida hori guztiz garrantzitsua da Europaren eta bertako herritarren proiektuaren etorkizunerako.

Eztabaida hori ezin da askatu Europar Batasunak, honakoak lortzeko, oro har, behar duen politika ekonomiko egokiari buruzko eztabaidatik: krisialditik eta austeritatearen fundamentalismo faltsutik ateratzea eta berriz hazi, enplegua sortu eta Europa 2020 Estrategiaren helburuak lortzea.

Sozialisten parlamentu-taldeak kezka sakona dauka, agerikoa baita krisialdi ekonomikoa gure gizartearen oinarriko egiturak suntsitzen ari dela. Kezka hori hamaika aldiz adierazi dugu, bai gure herrialdean, PSOEko sozialista espainiarrok ordezkariak daukagun maila guztietan –toki administrazioan eta administrazio autonomiko eta nazionalen–, bai European, Europako Parlamentuko Socialistas & Demócratas (S&D) parlamentu-taldearen bitartez.

Sozialistok ez dugu sinesten Espainiako eta Europako eskuinak inposatu nahi digun pentsamendu bakarrean, egungo krisi ekonomiko eta finantzariotik ateratzeko bide bakarra austeritate ekonomikoa dela dioen pentsamendu bakarrean.

Europa mailan, Batasun guztia hartuta, inbertsioa behera egiten ari da 1992tik, eta joera hori larriago bihurtu da krisialdia hasi zenetik (2009an BPGaren % 2,8 eta % 2,3 2011n). Joera horri buelta eman behar zaio, EBren ekonomia bere lehengo ibilbidera eramateko eta behin betiko apustu egiteko kalitatezko enplegu egonkorra bermatzeko gai diren sektoreetan oinarritutako hazkunde ekonomikoaren alde. Europako ongizatearen eredia, Europako Gizarte Eredua, eta oparotasuneko eta justizia sozialeko etorkizuna berma dezakeen bidea da hori.

Ikuspegi horretatik, EBren aurrekontua politika antiziklikoa egiteko tresna garrantzitsua izan daiteke, eta izan behar du. Une honetan Europar Batasunaren aurrekontua murrizteak gastu publikoaren gutxitze larria ekarriko luke estatu kide askotan, eta krisia sakonagoa egiten eta haren gaintzea atzeratzen lagunduko luke.

PSOEn sinesten dugu EBren aurrekontuak ahalegin nazionalak koordinatzeko eta hobetzeko tresna bat izan behar duela, zeinak balioko baitu Europatik bideratzeko etorkizunera orientatuta dauden inbertsioak, giza kapitalean eta hezkuntzan eginikoak, jakintzan oinarritutako gizarte baten alde, azpiegituren alde, ikerketaren alde, berrikuntzaren alde, enpresa txiki eta ertainen alde eta teknologia berri berdeen alde. Estatu kideek beren kabuz ezin dituzte helburu horiek erdietsi, krisialdi sakoneko azken urte hauetan egiaztatu dugun bezala eta, era berean, adibidez, 2000-2010 urteetako Lisboako Estrategia deitutakoak hazkunde ekonomiko argiko etapa batean izan zuen porrotean egiaztatu zen bezala.

Europak ezin du berriz porrot egin helburu horretan, zeren eta horrek behin betiko utziko baidute Batasuna lidergo globaletik kanpo, bera izan baita gizarterik garatuena, gizarte-ongizate eta kohesiorik handiena zuena eta kalitate handiko enplegua sortzeko gai zena.

Hori dela eta, ez Europar Batasunak bere orokorrean, ez, are gutxiago, Espainiak, ezin dezakete galdu EBk 2014-2020 urteetarako izanen duen aurrekontuari buruzko eztabaida, hain zuzen ere lortu behar delako Perspektiba Finantzario berri hauek lagungarri gerta daitezela Europako gobernantza ekonomikoa indartzeko eta UE-2020 estrategia gauzatzeko, hazkunde adimentsu, jasangarri eta integratzailea lortze aldera.

Europar Batasunaren Perspektiba Finantzarioak berrikusteko, baliabide berekien sistema erformatzeko eta kohesio politikak eta nekazaritza politika komunak erformatzeko prozesuaren esparruan –eta orain, sekula baino gehiago,

2012ko azaroaren 22an eta 23an gai hori modu monografikoan eztabaidatu Europako Kontseilu bereziaren porrotaren eta akordio faltaren ondoren–, sinetsita gaude Espainiako Gobernuak jarraitu beharko dituela ondoren zehaztuko ditugun helburuak, kasuko negoziazio-estrategia definitu eta burutzeko eta 2013an akordio bat lortzeko; betiere, ez edozein preziotan lortutako akordio bat, zeren eta onartezina bailitzateke datorren aldiko hazkunde-estrategien garapena eragozten duen baliabideen gutxitze oro.

Sozialisten parlamentu-taldeak uste du beharrezkoa dela, gobernuaren negoziazio-jarrera indartzeko, parlamentu-talde guztiek joan den legegintzaldiaren amaieran erdietsitako konpromisoa berritzea, haren edukia gaurkotuta, hain zuzen ere gure herrialdearen eta Europar Batasunaren beraren interesak behar bezala defenda daitezzen 2014-2020 urteetarako Urte Anitzeko Finantza-esparru berria onesteko amaierako fasean.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du:

1. Kohesio Politikaren finantziarioak, Landa Garapenerako Funtsek eta Itsas eta Arrantza Politikaren finantziarioak lagungarri gertatu behar dute, modu zehatz eta neurgarrian, 2020 Estrategiaren helburuak lortzeko, hazkunde adimentsu, jasangarri eta integratzailea lortzeko, eta laguntza eman behar dute EBko desoreka makroekonomikoak zuzentzeko. Funtz horiek, halere, zigor-tresna bat bilaka daitezke, baldintza makroekonomikoei lotutakoa.

2. Berma dezan funts horien erabilera eta xedapenak ez dakiela ezar Egonkortasun Ituna betetzearekin lotutako baldintza makroekonomikorik. Erregioetako eta tokiko agintariak, herritarren izenean jarduten dutenek, ez dute zigorrak edo baldintzarik eduki behar beste maila batzuetan hartutako erabakien ondorio makroekonomikoengatik. Ez dago zuzeneko harremanik erregio-politikaren emaitzen eta estatu kide baten emaitza makroekonomikoen artean, eta erregioek ez dute zigorrak jasan behar gobernantza ekonomikoari lotutako prozedurak nazio mailan ez betetzeagatik. Gure ustez, zehapen berriak ezartzeak estatu kideen arazoak areagotu litzake, zeren eta jadanik zailtasun makroekonomikoak bai baitituzte, eta, horrenbestez, makroekonomiari baldintzatzea onartezina baita.

3. Lor dezan Kohesio Politikaren finantziarioa (Egiturazko Funtzak eta Kohesio Funtzak) erregio guztien eskura egon dadila eta gutxienez ere

2007-13 urteetako mailan egon dadila. Europako Gizarte Funtsari kohesio-politikaren finantzaketa osoaren % 25 esleitu behar zaio, enplegarritasuna eta inbertsio soziala sustatzeko. Europako Gizarte Funtsaren % 20 gorde beharko litzateke gizarteratzea eta pobreziaren aurkako borroka sustatzeko.

4. Kontuan har dezan krisi sakoneko une hone-tan tokiko eta erregioetako enteek datorren aldira-ko beren hazkunde estrategiak ziurtasunez planifi-katu behar dituztela, eta nolabaiteko anbizioz, berriz hazteko eta enplegua sortzeko. Europa 2020 Estrategiaren helburuek erregio-politika sendo bat exijitzen dute, non kohesioak demostra-tuko baitu, iraganean ere egin duen bezala, Euro-pak bankuak salbatzeko ez ezik, enplegua eta hazkundera sortzeko ere jarduten duela.

5. Guztizko lehenetasun gisa ezar dezan kohe-sio politikaren negoziazioa. Diseinatu eta ezar ditzan beren per capita errentan Europako batez beste-koaren % 75 gainditzeagatik konbergentzia helbu-rua abandonatu behar duten erregioetarako irtee-ra-estrategia gradual eta bidezkoak, erregio horiek kohesio politikatik jasotzen duten dotazio finantza-rioan bat-bateko aldatetak gerta ez daitezen behar diren iragankortasun-aldiak ezarriz, atribu-zio hori modulatu, haiei egonkortasun finantza-rioa emanez eta erregio oparoenetarantzko kon-bergentzia ildoan jarraitzeko modua emanez.

6. Ez dezan babestu lehiakortasun helburuaren barruan baliabide-banaketa modulazioa bermatzen ez duen amaierako emaitza bat, kontuan hartuz erregioen garapen maila desberdina, aztertuz zer aukera dauden helburu beraren barrenean tar-teak ezartzeko, halako modez non "lehiakortasun-erregio" etiketa kolektiboari eutsita ere, erregioen

artean mota eta tratamendu desberdinak egonen ez baitira helburu horren barrenean. Horrek, izan ere, hobeki islatuko du erregioen heterogeneota-suna eta aukera emanen du funtsak modu zeha-tzagoan banatzeko.

7. Etorkizuneko kohesio politika kudeatzeari begira sinpletzea eta malgutzatzea defenda ditzan, kudeaketa-ereduaren eraginkortasuna segurtatuz, funts-xurgapena ahal den guztian areagotzeko. Hori dela eta, egungo sistemaren iraupena plante-atu beharra dago, behar diren hobekuntzak eginez aldirako esleitutako funts guztiak eraginkortasun handiagoz erabiltzea bideratuko duen malgutasun-helburua lortze aldera.

8. Kanariar Uharteei buruzko Kohesio Politiken barruan, tratamendu berezi bat negoziatzea, peri-feriaz haragoko erregioa baita, Lisboako Itunean eta EBren Funtzionamendu Itunean jasotako agin-duak garatuz.

9. Ceutari eta Melillari, urrun diren muga-hiriak direnez eta daukaten berezitasunarengatik, trata-mendu berezitua eman behar zaie, haien baldintza geografikoetatik heldutako eragozgarriak islatuz.

10. Kohesio Politikaren funtsak banatzeko iriz-pideak egokitzea Europa 2020 Estrategiaren hel-buruekin bat, Diputatuen Kongresuak 2011n onetsi zuen ebazpenean ezarri bezala, garrantzi handia-goia emanez langabeziari eta funts-banaketarako beste faktore batzuk ezarriz; esate baterako, esta-tu eta erregioen arrakala teknologikoa, berrikun-tza, eskola-uzteari buruzko indizeak edo populazio immigrantearen tasa.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 22an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuaren premiatzen da ziurta dezan Nekazaritzako Politika Komunik egungo diru-esleipena izaten jarraitzea.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuaren premiatzen baita ziurta dezan Nekazaritzako Politika Komunik egungo diru-esleipena izaten jarraitzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkezten du, dagokion batzordean eztabaidatu eta bozka dadin. "2014-2020 urteetako Perspektiba Finantzarioak (PPFF) (Urte Anitzeko Finantza-esparrua)" direla eta Europar Batasunean izaten ari den negoziazioari buruzkoa da, eta bereziki Nekazaritzako Politika Komunikari buruzkoa.

Europar Batasuna eztabaidatzen ari da etorkizunean, 2014-2020 urteetan izanen duen aurrekontuari buruz –Perspektiba Finantzarioak (PPFF) izenekoak– tamainari, bai egiturari dagokienez (2014-2020 urteetako Urte Anitzeko Finantza-esparrua)–, lan modalitatei buruz (Erakundeen arteko Akordioa) eta bere finantzia-egintza buruz (baliabide propioak). Eztabaida hori guztiz garrantzitsua da Europaren eta bertako herritarren proiektuaren etorkizunerako.

Eztabaida hori ezin da askatu Europar Batasunak, honakoak lortzeko, oro har, behar duen politika ekonomiko egokiari buruzko eztabaidatik: krisialditik eta austeritatearen fundamentalismo faltsutik ateratzea eta berriz hazi, enplegua sortu eta Europa 2020 Estrategiaren helburuak lortzea.

Sozialisten parlamentu-taldeak kezka sakona dauka, agerikoa baita krisialdi ekonomikoa gure gizartearen oinarriko egiturak suntsitzen ari dela. Kezka hori hamaika aldiz adierazi dugu, bai gure herrialdean, PSOEko sozialista espainiarrok ordezkariak daukagun maila guztietan –toki administrazioan eta administrazio autonomiko eta nazionalen–, bai European, Europako Parlamentuko Socialistas & Demócratas (S&D) parlamentu-taldearen bitartez.

Sozialistok ez dugu sinesten Espainiako eta Europako eskuinak inposatu nahi digun pentsamendu bakarrean, egungo krisi ekonomiko eta finantzariorik ateratzeko bide bakarra austeritate ekonomikoa dela dioen pentsamendu bakarrean.

Europa mailan, Batasun guztia hartuta, inbertsioa behera egiten ari da 1992tik, eta joera hori larriago bihurtu da krisialdia hasi zenetik (2009an BPGaren % 2,8 eta % 2,3 2011n). Joera horri buelta eman zaio, EBren ekonomia bere lehengo ibilbidera eramateko eta behin betiko apustu egiteko kalitatezko enplegu egonkorra bermatzeko gai diren sektoreetan oinarritutako hazkunde ekonomikoaren alde. Europako ongizatearen eredia, Europako Gizarte Erdua, eta oparotasuneko eta justizia sozialeko etorkizuna berma dezakeen bidea da hori.

Ikuspegi horretatik, EBren aurrekontua politika antiziklikoa egiteko tresna garrantzitsua izan daiteke, eta izan behar du. Une honetan Europar Batasunaren aurrekontua murrizteak gastu publikoaren gutxitze larria ekarriko luke estatu kide askotan, eta krisia sakonagoa egiten eta haren gainditzea atzeratzen lagunduko luke.

PSOEn sinesten dugu EBren aurrekontuak ahalegin nazionalak koordinatzeko eta hobetzeko tresna bat izan behar duela, zeinak balioko baitu Europatik bideratzeko etorkizunera orientatuta dauden inbertsioak, giza kapitalean eta hezkuntzan eginikoak, jakintzan oinarritutako gizarte baten alde, azpiegituren alde, ikerketaren alde, berrikuntzaren alde, enpresa txiki eta ertainen alde eta teknologia berri berdeen alde. Estatu kideek beren kabuz ezin dituzte helburu horiek erdietsi, krisialdi sakoneko azken urte hauetan egiaztatu dugun bezala eta, era berean, adibidez, 2000-2010 urteetako Lisboako Estrategia deituta-

koak hazkunde ekonomiko argiko etapa batean izan zuen porrotean egiaztatu zen bezala.

Europak ezin du berriz porrot egin helburu horretan, zeren eta horrek behin betiko utziko baiduke Batasuna lidergo globaletik kanpo, bera izan baita gizarterik garatuena, gizarte-ongizate eta kohesiorik handiena zuena eta kalitate handiko enplegua sortzeko gai zena.

Hori dela eta, ez Europar Batasunak bere orokorrean, ez, are gutxiago, Espainiak, ezin dezakete galdu EBk 2014-2020 urteetarako izanen duen aurrekontuari buruzko eztabaida, hain zuzen ere lortu behar delako Perspektiba Finantzario berri hauek lagungarri gerta daitezela Europako gobernantza ekonomiko indartzeko eta UE-2020 estrategia gauzatzeko, hazkunde adimentsu, jasangarri eta integratzailea lortze aldera.

Europar Batasunaren Perspektiba Finantzarioak berrikusteko, baliabide berekien sistema erreformatzeko eta kohesio politikak eta nekazaritza politika komunak erreformatzeko prozesuaren esparruan –eta orain, sekula baino gehiago, 2012ko azaroaren 22an eta 23an gai hori modu monografikoan eztabaidatu zuen Europako Kontseilu bereziaren porrotaren eta akordio faltaren ondoren–, sinetsita gaude Espainiako Gobernuak jarraitu beharko dituela ondoren zehaztuko ditugun helburuak, kasuko negoziazio-estrategia definitu eta burutzeko eta 2013an akordio bat lortzeko; betiere, ez edozein prezioan lortutako akordio bat, zeren eta onartezina bailitzateke datorren aldiko hazkunde-estrategien garapena eragozten duen baliabideen gutxitze oro.

Sozialisten parlamentu-taldeak uste du beharrezkoa dela, gobernuaren negoziatio-jarrera indartzeko, parlamentu-talde guztiek joan den legegintzaldiaren amaieran erdietsitako konpromisoa berritzea, haren edukia gaurkotuta, hain zuzen ere gure herrialdearen eta Europar Batasunaren beraren interesak behar bezala defenda daitezen 2014-2020 urteetarako Urte Anitzeko Finantza-esparru berria onesteko amaierako fasean.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuaren premiaz du:

1. Berma dezan Nekazaritza Politika Komunaren (NPK) egungo asignazioei eutsiko zaiela, bai termino absolutuetan, bai termino sektorialetan. Horrek esan nahi du ez zaiola uko eginen ezta NPKek sortzen dituen itzulkinen euro bakarrari ere. Hori dela eta, Espainiako Gobernuarentzat lehentasunezko kontua izan behar dute horiei

eutsiko zaiela ziurtatzeak eta balizko igoerak negoziatzeak.

2. Defenda dezan Europako Batzordeak eginko proposamenari, 2011ko ekainean argitaratutakoari, eutsiko zaiola. Proposamen hori ez da inola ere behar negoziatu behar. Batzordeak proposatu du NPKari 281.825 milioi euro esleitzea, zuzeneko ordainketetarako eta merkatu-neurrietarako; 89.000 milioi euro Landa Garapenerako, eta 15.200 milioi euro honakoetara bideratuko diren funtsetarako: ikerketa eta garapena (4.500 milioi euro), elikagaien segurtasuna (2.200 milioi euro), herritar beharretuak elikatze laguntza (2.500 milioi euro), nekazaritza sektoreko krisi-erreserba (3.500 milioi euro) eta Europako Globalizazio Funtsa (2.500 milioi euro).

3. Onar dezan ezen NPKerako erabiltzen den aurrekontua murrizteak berarekin ekarriko lukeela nekazaritza politikaren amaieraren hasiera, politika komun gisa, eta atea irekiko lukeela bera birnazio-nalizatzeko, horrek Espainiako nekazaritza sektorean izanen lituzkeen eragin negatiboekin. Eta hori guztia, bai Europar Batasunarekiko oreka finantzarioa lortzen laguntzen duelako, bai Espainiako ekonomiarako oinarritzeko den sektore estrategiko baten lehiakortasuna bermatzen duen nekazaritza politika bati eusteko funtsezko elementua delako. Sektore horrek, gainera, landa-ingurunearen kohe-sioa bermatzen laguntzen du.

4. Ez dezan onar, inolaz ere, egungo laguntza-mailaren inongo murrizketarik, ez zuzeneko laguntzen eta merkatu-neurrien lehenengo zutabeari dagokionez, ez eta landa garapenaren, dibertsifikazioaren eta ingurumenaren inguruko bigarren zutabeari dagokionez ere. Nekazaritzako aurrekontuaren edozein murrizketak berarekin ekarriko luke berariaz uko egitea NPKaren iragarritako erreforma-proposamen iragarriei, bereziki Grenin-gari, zutabeen arteko eskualdaketei eta Cappingari dagokienez.

5. Estatuaren arteko konbergentzia printzipioa aplikatzeak –bai lehenengo zutabeari dagokionez, bai bigarrenari dagokionez– inolaz ere ez du berarekin ekarri behar Espainiak zati bat gal dezan bi funts horietan (FEAGA eta FEADER) duen partaidetzaaren ehunekoan.

6. Lehenengo zutabearen birnazio-nalizazio- edo kofinantziazio-elementuak sartzearen aurka egin dezan, eta exiji dezan Europar Batasuneko aurrekontutik gaur egun jasotzen dituen zenbatekoei euts dakiela, gutxienez ere. (6.000-6.500 milioi euro FEAGAtik eta 1.700-1.900 milioi euro FEADERTik), baita nekazaritzako gastuaren barneko birbanatze-prozesuak egiten badira ere. Espainiak

Europar Batasunaren laguntza finantzarioko ahal den ehuneko handiena babestuko du kofinantziatutako programaren kasuan, bereziki trantsizio egoeran daudela jotzen den erregioetan.

7. Lor dezan lehenengo zutabearen dotazioa errubrikaren guztizkoaren % 70-75ekoa izan dadila eta Europar Batasunak guztiz finantzatua izan dadila. Bigarren zutabeak nekazaritza gastuaren errubrikaren guztizkoaren % 25-30ekoa izatera mugatu beharko du. Egungoaren hurbilekoa den eszenatoki honi eutsi behar zaio zutabeen arteko egonkortasun finantzarioa bideratzen duelako eta baterako zein besterako desbideratzeen ondorioz konparaziozko bidegabekeriak sor daitezzen eragozten duelako.

8. Arrantza dela eta, berma dezan Europako Itsas eta Arrantza Funtzak isla dezala Europar

Batasunaren lehentasunen multzoa, arrantza-politika berri baten finantziak arriskuan jarri gabe. Gainera, sektorearen "birmoldaketari" erreparatu beharko zaio (itsasontziak desegiteko laguntzak), eta behar den heinean erantzun beharko zaie aldi baterako geraldiei –baita ezohiko arrazoiren bati zor zaizkionei–, flotaren modernizazioari eta arrantzaren arloko berrikuntza eta ikerketa bultzatzeari, bai eta ingurumena hobeki errespetatzen duten arrantza-artearen erabilerrari ere. Gainera, periferiaz haratagoko erregio gisa Kanariar Uharteek duten izaera hartu beharko da kontuan. Azken batez, defendatzen dugu funtsa Arrantza Politika Komun berriaren helburuen zerbitzura egon dadin.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 22an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Kontseilu Ekonomiko eta Soziala ken dezan.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Kontseilu Ekonomiko eta Soziala ken dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Kontseilu Ekonomiko eta Soziala desegiteko mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Parlamentu-talde Popularrak bi galdera egin zizkion Nafarroako Gobernuari 2012ko azaroan eta abenduan, Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak 1996an sortu zenetik gaur egun arte egindako jarduerari buruz eta entitate horretan parte hartzen duten erakundeei bileretara joateagatik ordaindutako dietei buruz.

Nafarroako Gobernuak emandako informazioak erakusten duenez, Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak ez du jarduera handirik izan, urtean behin baino ez baita bildu ohi. Erakunde hori indartsu hasi zen lanean; izan ere, 1996an lau bilera egin zituen, eta 1997an, berriz, bost; baina 1998ko ekitalditik aitzina nabarmen gutxitu ziren bilerak. Datu ofizialen arabera, 2001ean ez zuen inolako jarduerarik izan. 2007tik aitzina, eta 2009ko salbuespenarekin –bi bilera egin zituen–, Kontseiluaren lana urtean bilera bat egitera mugatu da.

Kontseilu Ekonomiko eta Soziala bizirik mantentzeak, datu ofizial horien arabera, 4,1 milioi euroko gastua ekarri dio dietatan, 1996tik 2010era bitarte, Nafarroako Gobernuari.

Zenbateko horri dagokionez, deigarri egiten dira ondokoak:

– 2001eko ekitaldian 51 milioi pezetako gastua egin zen dietak ordaintzeko, nahiz eta Nafarroako

Gobernuak berak Parlamentuari emandako erantzunean aitortu duen Kontseiluak ez zuela inolako jarduerarik izan.

– Kontseilu Ekonomiko eta Sozialean parte hartzen zuten entitateei emandako tratu ezberdina; izan ere, batzuek dietak jasotzen zituzten, eta beste batzuek ez.

– 2012rako Nafarroako aurrekontu orokorretan eta 2013rako aurrekontu orokorren proiektuan kontusail bat zegoen Kontseilu Ekonomiko eta Sozialean parte hartzeagatik dietak ordaintzeko, nahiz eta Gobernuak publikoki adierazi erakunde horretan ez dela dietarik ordaintzen 2011tik aitzina.

Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren jarduera murrizta eta milioi askoko dieten ordainketak ikusita, egokia da erakunde hori existitzearen egokitasunaz hausnartzea.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Kontseilu Ekonomiko eta Soziala desegin dezan.

2. Nafarroako aurrekontu orokorren proiektuetan ez dezan berriro sar Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren jarduerari edo dieta-ordainketari lotutako kontusailik.

3. Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren jarduera eta Nafarroako aurrekontu orokorren nahiz beste foru lege batzuen onespena lotzen dituzten xedapenak indargabetu ditzan.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da jarrera positibo eta proaktiboagoa izan dezan euskara hedabideetan sustatzeari dagokionez.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA ATXIKI GABEKO FORU PARLAMENTARI MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PAXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Paxi Leuza García jaunek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita jarrera positibo eta proaktiboagoa izan dezan euskara hedabideetan sustatzeari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Parlamentu honetan sarri askotan eztabaidatu dugu euskara hedabideetan, bereziki ikus-entzuzkoen esparrukoetan, sustatzeari buruz. Bereziki mingarria da, bidegabekia izateagatik eta denboran luzatzeagatik, Euskalerrri Irratiak bere borondatearen aurka bizi duen irregularitasun-egoera, zeinaren gainetik ozta-ozta lortzen baitu euskara hedatzeko funtsezko lana egitea. Auzi hau dela-eta, egoera hori konpon dadin eskatzeko zenbait erabaki onetsi ditu Parlamentuak, eta badira, orobat, epai judizialak, Arartekoaren gomendioak eta gizartearen nahiz hedabideen beren eskariak, baina horiek guztiak antzu gertatu dira orain arte; azkena, Europako Kontseilutik heldu den gomendioa izan da, Hizkuntza Gutxituei

buruzko Europako Gutunean hartutako konpromisoak betetzeari buruzko bere hirugarren txostenean.

Txosten horri buruz luze eztabaidatu da Hezkuntza Batzordean eta Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako Batzordean, eta nahiz eta ez dagoen hartutako konpromisoen betetzeari buruzko ikuspegi komun bat, ez eta txostena positiboa izateari ala ez izateari buruzko rik ere, gure ustez garrantzitsua da txostenean jasotzen diren gomendioak aintzat hartzea; eta Nafarroako Gobernuak onartzeko modukoak direnez gero, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu, eztabaidatu eta onesteko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarrera positiboagoa eta proak-

tiboagoa har dezan euskara hedabideetan sustatzeari dagokionez, halako moduan non euskara hutseko irati-emisioa erraztuko baitu.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du orain arte izan duen jarrera berrazter dezan, Euskalerrria Irratiarentzako lizentzia bat emateari dagokionez, haren borondatearen kontrako irregulartasun-egoera konpontze aldera.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentariak: Samuel Caro Sádaba, Bakartxo Ruiz Jaso, Nekane Pérez Irazabal, Marisa De Simón Caballero, Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ibilbide-orri bat presta dezan udal musika eskolen sektorea antolatu eta egonkortzeko.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ibilbide-orri bat presta dezan udal musika eskolen sektorea antolatu eta egonkortzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Iragan abenduaren 18an, Nafarroako Musika Eskolen Elkartearen ordezkariari entzuteko aukera izan genuen Hezkuntza Batzordean, eta udal eskola horiek gaur egun bizi duten egoerari buruzko iritzia azaldu ziguten. Azaldu zigutenez, musika eskolentzako diru-laguntza pixkanaka jaitsi da, nahiz eta prestakuntza mota hori eskatzen duten ikasleen kopuruak gora egin. Prestakuntza mota hori, zeina arautu gabeko irakaskuntzakoa baita, herrien beharrezanezi eta eskariei modu malguan egokituz joan da. Eskola horiek, zenbait kasutan, musika ikasketa arautuetarako prestakuntza urrats gisa erabiltzen dira, baina, kasurik gehienetan, elkarbizitzarako eta esperientziak musikaren bidez partekatzeko aukera ikusgarri egiteko gune dira, eta musika, kultur ekitaldietan, herrietako bizitzaren parte izan dadin laguntzen dute.

Murrizketa horiek zuzenean eragiten diete udalei eta familiei. Udalek, kasu askotan diru-sarrerara txikiagoak izan arren, eskolen aurrekontuen ehuneko handiago bati egin behar diote aurre, halako neurriraino non ezin baitute konpentsatu Gobernuak jarri gabe uzten duena, eta, halatan, familiek ordaindu beharreko tasak gora egiten du. Ezegonkortasun-egoera horrek dakar, alde batetik, eskolatan ezin izaten direla sartu horretarako nahiz luketen pertsona guztiak; alegia, jendea eskola

horietatik eta musikatik urruntzen da. Beste alde batetik, aurrekontuaren gaineko ziurgabetasuna eragozpen bihurtzen da eskolen hezkuntza proiektuak garatzeko.

Musika Eskolen Elkarten ordezkariak azaldu zuten, erabat prest daude egungo egoera hobetu dadin lan egiteko; zenbait eskaera egin zizkiguten, eta parlamentu-talde gehienok eskaera horiekin bat egin genuenez, ondoko erabaki proposamenean jasotzen ditugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ibilbide-orri bat presta dezan udalen musika eskolen sektorea antolatu eta egonkortzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du musika eskolei finantziazio

egonkorra eman diezaien, babes ekonomiko handiagoarekin emanda.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Hezkuntza Departamentuaren prestakuntza planen barruan sar dezan musika eskoletako irakasleen prestakuntza.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du musika-tresnen pedagogiako titulaziorako ikaspostuen kopurua handitu dezan Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioan.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentariak: Pedro Rascón Macías, Miren Aranoa Astigarraga, Nekane Pérez Irazabal eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da liburu digitalak eskuratzeko proiektu pilotu bat ezar dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen liburu digitalak eskuratzeko proiektu pilotu bat

ezar zezan. Mozio hori 2012ko azaroaren 11ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak egungo foru araubide mugatuaren kudeaketari buruzko zenbait neurri hartzeko borondatea adierazten du.

FORU ARAUBIDEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordeak, 2013ko urtarrilaren 30ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak egungo foru araubide mugatuaren kudeaketari buruzko zenbait neurri hartzeko borondatea adierazten du.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere borondatea dela egungo foru araubide mugatuaren kudeaketa arloko neurri hauek aktibatzea:

1. Nafarroaren eta Estatuaren arteko aldebiko bilera deitzea berehala, Foruaren Hobekuntzako

69. artikuluan ezarri bezala, exijitze aldera ez daitezkeen berriz ere erabil Foruaren Hobekuntzan adierazitako ahalmen berekia de facto ukatzeko, Foruaren Hobekuntzako zenbait kontzeptu zehaztugabe –esaterako, “Estatuak arlo honetan dituen eskumenak deusetan kaltetu gabe”–.

2. Nafarroa Ecofinen egon dadin exijitzea. Nafarroak, Europar Batasunaren barruan Ogasun berekia duenez gero eta Europako beste lurralde batzuetan gertatzen den bezala, eskubidea du organo horretan egoteko eta organo horretan hartzen diren erabaki ekonomiko garrantzitsuetan parte hartzeko eta bere iritzia emateko.”

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baitu Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzak duen jarrera langile publikoei dagokien paga ordaindu dieten Nafarroako udalekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du:

– Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzak duen jarrera langile publikoei dagokien paga, Nafarroako Parlamentuak onetsitako legearen arabera ordaindu dieten Nafarroako udalekin.

– Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Nafarroako Gobernua Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez izaten ari den jokabidea, toki entitateei eskatzen ari baitzaie beren zer-

bitzuko langileei egindako ordainketen ziurtagiriak eta txostenak.

Nafarroako Parlamentuak udal autonomiarekiko bere konpromisoa aldarrikatzen du, eta uste du PPren Espainiako Gobernua Nafarroaren erabakien aurka izaten ari den jokabideak urratu egiten dituela Foru Hobekuntzako 46. artikuluan aitortutako eskumenak eta Nafarroak Funtzio Publikoaren arloan bere politikak definitzeko daukan esku-bidea.”

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere kezka agertzen baitu, Kongoko Errepublika Demokratikoaren Ekialdeko indarkeria endemikoko egoera dela eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du:

– Kezkatuta dagoela orain dela urte batzuetatik hona Kongoko Errepublika Demokratikoaren Ekialdeak bizi duen indarkeria endemikoko egoera dela eta, zeinak eskualdeko populazio zibilari eragiten baitio bereziki.

– Asaldatuta dagoela M23 izeneko talde armatuak azken hilabeteotan eragindako indarkeria-goraldia dela eta, zeinak azkenean Ipar Kivu probintziako hiriburu Goma hartzea ekarri baitu.

– Suminduta dagoela Kongoko Errepublika Demokratikoaren Ekialdeko biztanleen giza eskubideak duela hamabost urte baino lehenagotik sistematikoki urratzearen aurrean nazioarteko erkidegoak erakutsitako soraiotasunarengatik eta pasibotasunarengatik.

– Arduratuta dagoela, nabarmena delako eta egiaztatuta dagoelako Kongoko Indar Armatu

(FARDC) eta Kongoko Errepublika Demokratikoa Egonkortzeko Nazio Batuen Misioren (Monusco) ezintasuna herrialdearen ekialdeko pertsonen integritatea defendatzeko.

– Gaitzetsi egiten duela Ruanda eta Uganda herrialde mugakideetako gobernuen jokabide destabilizatzailea, M23 talde armatua hornitu eta sostengatzen baitute, Nazio Batuek bertara igorritako adituen azken txostenen bidez salatu dute-nez.

– Bere elkartasuna adierazten diola Kongoko herriari eta, bereziki, une honetan, eta eskualdean nagusi den indarkeria dela kausa, beren etxeetatik lekualdatuta dauden milaka eta milaka pertsonen.

– Bereziki kezkatuta dagoela emakumeek lurralde horretan bizi duten zaugarritasun-egoerarengatik; izan ere, orokorra da eskualdeko talde armatu gehienek sexu-indarkeria gerrako arma gisa erabiltzea.

– Bere babesa ematen diela konponbide erreal eta iraunkorrak bilatzen dituzten tokiko nahiz nazioarteko ekimen guztiei, Kongoko Errepublika

Demokratikoaren Ekialdea behin betikoz baketzea dakartenei.

– Bere babesa ematen diela gatazka bizi duten pertsonengandik gertu dirauten erakunde humanitarioei, pertsona horiei gutxieneko bizi kalitateko estandar batzuk eskaintzearren.

– Bere babesa ematen diola Nafarroaren lankidetzari, lanean jarraitze aldera larrialdi eta krisi kronikoko egoeretan, zeinetan Nafarroako zenbait GKE betekizun garrantzitsua izan baitute errefuxiatuei eta lekuz aldatuei laguntzen.

Halaber, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio:

– Nazio Batuei exiji diezaion Kongoko Errepublikak Demokratikoan bakea mantentze aldera esku hartzeko estrategia alda dezaten, ikusita orain arte emaitza eskasak lortu direla munduko edozein lekutan orain arte hedatutako kasko urdinen kontingenterik handienarekin, zeinak milioi bat dolarreko kostua izan baitu egunero.

– Europar Batasuneko erakundeen barruan proposa dezan berariazko lan-talde bat eratzea, alderdi anitzeko elkarrizketa-mahai bat sortzeko errepide-orri bat taxutzeko eginkizuna izanen duena bakar-bakarrik, eta Kongoko Errepublika Demokratikoaren Ekialdeko gatazkan inplikaturako eragile guztiek osatua.

– Ez dezan bertan behera utz Kongoko Errepublika Demokratikora bideratutako lankidetzari eta laguntza humanitarioko politika. Espainiako GKE-en bidezko lankidetzako esku-hartzeak sendotuz, eta beste eragile humanitario batzuekin koordinatuta.

– Ezbairik gabe gaitzets dezan atzerriko injerentzia oro Kongoko Errepublika Demokratikoaren lurralde burujabearen, eta nazioarteko erkidegoari proposa diezaion beharrezkoak diren zehapenak jartzea halako injerentzia bat egiten duen estatu orori”.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu bere bokazioa eta nahia dela ahalik eta nafar gehienek euskara ikastea.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du:

Bere bokazioa eta nahia dela ahalik eta nafar gehienek euskara libreki ikastea, horrek hizkuntza horren biziraupena ziurtatuko duelako”.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, “Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatik sindikatuei, gizarte ekonomiako elkarteei eta enpresaburuen elkarteei egin beharreko ordainketa” izeneko kontusailaren erabilerari eta xedeari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, “Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatik sindikatuei, gizarte ekonomiako elkarteei eta enpresaburuen elkarteei egin beharreko ordainketa” izeneko kontusailaren erabilerari eta xedeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko lehen lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Parlamentu-talde Popularrak Nafarroako Gobernuaren bi erantzun jaso ditu idatziz, Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak 1996an sortu zenetik egindako jarduerari buruz eta entitate horretan parte hartzen duten entitateei ordaindutako dietei buruz egindako galdera idatziak direla eta.

Eskuratutako informazioa ikusita, hauxe jakin nahi dut:

Zertan eta zer xedetarako erabili da “Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatik sindikatuei, gizarte ekonomiako elkarteei eta enpresaburuen elkarteei egin beharreko ordainketa” izeneko 2012ko Nafarroako aurrekontu orokorretako kontusaila, 232.109 euro esleiturik zituena?

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen Comptos Ganberak Nafarroako Enplegu Zerbitzuari buruzko txostenean egini-ko gomendioak garatu eta aplikatzeko.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen Comptos Ganberak Nafarroako Enplegu Zerbitzuari buruzko txostenean egini-ko gomendioak garatu eta aplikatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xeda-

tuaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak lehen lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Comptos Ganberak Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren jarduerari buruzko fiskalizazio txostena egin du orain dela gutxi. Txosten horretan, Nafarroako kontu publikoen organo fiskalizatzaileak zenbait gomendio eman ditu, ohikoa den moduan, Nafarroako Gobernuaren erakunde autonomoa den Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren lana hobetze aldera.

Eskuratutako informazioa ikusita, hauxe jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak ba al dauka asmorik Comptos Ganberak Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren jarduerari buruzko fiskalizazio txostenean egindako gomendioak, hein batean edo osorik, garatzeko eta aplikatzeko?

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Osasunerako zentimoaren gainean behin betiko erabaki bat hartzeko arrazoiei buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Osasunerako zentimoaren gainean behin betiko erabaki bat hartzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoechea andreak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean ahoz erantzun dezan.

Oraintsu ezagutu ditugu 2012ko abenduko diru-bilketari buruzko datuak. Hidrokarburoen gaineko zerga berezietatik heldu den diru-bilketak berriro ere izan du portaera oso negatiboa, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Orain dela gutxi, parlamentari honek egindako galdera baten erantzunean, Gobernuak lehendakariordeak adierazi zuen Gobernuak oraindik ez

zeukala behar beste daturik, 2012ko uztailaren 1etik hona indarrean dagoen osasunerako zentimoaren egokitasuna balioesteko.

Egia da Gobernuak adierazi zuela denbora gehiago behar zuela horri buruzko erabaki bat hartzeko, baina arlo horretako diru-bilketaren jaitsiera oso kezkarria da, eta, itxura batean, osasunerako zentimoa jaitsiera horren atzean egon daiteke hein batean.

Ikuspegi horretatik, jokoan dagoen diru-bilketa oso garrantzitsua izan daiteke, bai eta erabakigarririk ere, ekonomia suspertzeko eta ongizatearen estatua mantentzeko neurriak aplikatzeko.

Hartara, ondokoa jakin nahi dugu:

Diru-bilketari buruzko datu berriak ikusita, Gobernuak uste du jada badirela arrazoiak osasunerako zentimoaren gaineko behin betiko erabaki bat hartzeko?

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, jakiteko aldaketarik eginen ote den banku-entitateekin eginiko hitzarmenetan, funtsak handitzea ahalbidetzeko.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko aldaketarik eginen ote den banku-entitateekin eginiko hitzarmenetan, funtsak handitzea ahalbidetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu

du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilari Lourdes Goicoechea andreak Ekonomia eta Ogasun Batzordean ahoz erantzun dezan.

Gobernuak emandako informazioaren arabera, BEIk Sodenari emandako maileguaren lehendabiziko tartetik produkzio-ekonomiara bideratutako saldoa 30 milioi euro ingurukoa izanen omen da urte amaieran (guztira, 100 milioi ziren).

Orobat jakin ahal izan da BEIrekiko akordioak jasotzen duela ezen bigarren tartea, behin lehendabiziko tartea bideratuta, 150 milioi eurokoa izanen dela.

Adierazitako gauzatze-tasa murrizta ikusita, hauxe jakin nahi dut:

Banku entitateekin egindako akordioetan aldaketarik egitea aztertzen ari al da Nafarroako Gobernuak, funts horiek nabarmen handitu ahal izateko? Zeintzuk?

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko lehendakaria ados ote dagoen Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilari Morrás jaunak egini-ko adierazpenekin, Legebiltzarraren urtarrilaren 24ko Osoko Bilkuran Lizarbe jaunari emandako erantzunean.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko lehendakaria ados ote dagoen Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilari Morrás jaunak egini-ko adierazpenekin, Legebiltzarraren urtarrilaren 24ko Osoko Bilkuran Lizarbe jaunari emandako erantzunean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina andreak Nafarroako Parlamentuko Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan.

Osoko Bilkuran Morrás kontseilariaren adierazpen batzuk entzun berri ditugu, parlamentari askorengan harridura sortzeaz gain larri-larritzat jo daitezkeenak.

Bereziki, "herri-subiranotasuna ez datza Nafarroako Parlamentuan" edo "Parlamentuak Gobernuaren eskumenak inbaditu ditu" bezalako adierazpenak ez dira Nafarroako Gobernuko kontseilari bati zor zaizkionak, eta arrazoizko kritika politikotik at daudela ematen du. Areago, Gobernuari sostengua ematen dion alderdi politikoaren ideiekin ere kontraesanean daudela pentsa liteke.

Hori dela-eta, parlamentari honek ondokoa galdetu nahi dio Gobernuko Lehendakariari:

1. Bat al zatoz Morrás jaunak Lizarbe jaunari emandako erantzunean adierazitakoekin, eta, besteak beste, zioen azalpenean jasotakoekin?

2. Morrás kontseilariaren aurkako neurriren bat hartu behar dela uste al duzu?

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Foru Administrazioiko goi kargudunei antzinasun sari gisa ordaindutako kopuruari buruzkoa.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako galdera, Foru Administrazioiko goi kargudunei antzinasun sari gisa ordaindutako kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak antzinasun-osagarria goi karguei aplikatzea jaso zuen, lehendabiziko aldiz, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren Foru Legean.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

1.- 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legeko 8. artikulua zortzigarren idatz-zatian xedatutakoa betez 2012ko ekitaldian ordaindutako diru-kopurua.

2.- 2012ko nominan aipatu idatz-zati horren arabera dirua jaso duten Foru Administrazioiko goi karguen zerranda banakatua. Zerranda horretan izenak, karguak, ordaindutako zenbatekoak eta antzinasun-saria aplikatzeko kontuan hartu diren behin-behineko lanpostuak zehaztea eskatzen da.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Galdera, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan aurreikusitako Lankidetzak Batzordeak eginiko bilere buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan aurreikusitako Lankidetzak Batzordeak eginiko bilere buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Azken 30 urteotan, zenbat aldiz bildu da Foruaren Hobekuntzako 69. artikuluan aurreikusitako "Lankidetzatza Batzordea"? Halaber eskatzen dut, kasua bada, bilera horien datak eta lekuak, jorratutako gaien zerrenda eta horien guztien akta.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Estatuaren eta Nafarroaren arteko Transferentzien Batzordeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Estatuaren eta Nafarroaren arteko Transferentzien Batzordeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Parlamentari honek ondokoa jakin nahi du Estatuaren eta Nafarroaren arteko Transferentzien Batzordeari buruz:

Lehena. Zertan da bere osaketa, legegintzaldien urte eta erdi joan eta gero?

Bigarrena. Nafarroako Gobernuak aurreikusita al dauka Transferentzien Batzordearen bilerarako deialdirik egitea? Noiz?

Hirugarrena. Nafarroako Gobernuak zer gai uste du sartu behar direla deialdian, Transferentzien Batzordeak jorra ditzan?

Laugarrena. Transferentzien Batzordeak azken 30 urteotan egindako bileren egutegia eskatzen dugu, bilera horietan jorratutako gaiak zehaztuta, eta orobat eskatzen dugu bilera horien aktak bidaltzea.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Gobernuak egin dituen gestioei buruzkoa, Parlamentuak eginiko eskari bat betetze aldera. Horren bidez, eskatzen zen tresna informatiko bat finantzatu eta garatzeko, kontabilitate- nahiz aurrekontu-kontrolakoarekin uztarturik egon beharko litzatekeena, toki korporazioei beren udal inbentarioak egitea ahalbidetzeko.

KOLDO AMEZKETA DÍAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urtarrilaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Amezketa Díaz jaunak aurkeztutako galdera, Gobernuak egin dituen gestioei buruzkoa, Parlamentuak eginiko eskari bat betetze aldera. Horren bidez, eskatzen zen tresna informatiko bat finantzatu eta garatzeko, kontabilitate- nahiz aurrekontu-kontrolakoarekin uztarturik egon beharko litzatekeena, toki korporazioei beren udal inbentarioak egitea ahalbidetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Amezketa Díazek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion.

Martxoaren 8an, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak ondoko mozioa onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari prestatzen du tresna informatiko bat finantzatzera eta garatzera egokien irizitako informatikagarapeneko enpresa baten bidez –Animsaren bidez, esaterako–, toki korporazioei ahalbidetze aldera modu homogeneo batez egin ahal izatea beren udal inbentarioak eta urteko mantentzea; tresna hori kontabilitate- nahiz aurrekontu-kontrolakoarekin uztarturik egon beharko litzateke.”

Mozioa onetsi zenetik ia urtebete igarota, parlamentari honek ondoko informazio hau jaso nahi du idatziz:

1.- Parlamentuaren eskariari erantzute aldera Gobernuak egindako zuzemen guzti-guztiak; bereziki, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, Comptos Ganberarekin eta tresna informatikoaren eta bere aplikazioen garapenarekin lotutako enpresa publiko edo pribatuekin egindakoak.

2.- Egindako lanak zertan diren orain eta lan horiek bukatzeko aurreikusitako data.

Iruñean, 2013ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Koldo Amezketa Díaz

